

AITA SEBASTIAN MENDIBURU-RI

BERE LENENGO EUNTEKO MUGALDIAN.



Anchiñatik gaurko egunetaraño Erdal-erriko izkributzalle askok, guztiak izan ezik, begiratu dabee auzkez andiyenagaz geure euskera maite eta ugaritsua; euki dabee bada izkuntz chachar, oker, astun eta gelpearen gisan, eta artu ditubez aren edertasunak, esagutu gabe, basotarren itzuneak legez.

¡A! ikasi nai izan balebe euskararen ekida eta alosi bekaleziñak, zelako pozez eta gozoz entzun izango eutsubezan, bizi ziñanian, zure sermoi bokaztiak, eta geroko denporetan, ze kontentuz irakurriko zitubezan zure miragarritzko liburubak!

Dira oneek zure seme eta zure ikasle otsaretsuen zorionak eta gogaldeak.

Baimena emon nagizu, euskal izkributzalleen bikañena, Euskal-Erriko illunenari deitu zagidazan zure eriotza santuko eunkidako egun doatsuban, eta erregu zagidazan gogargitu dagiyuezuzan Euskararen kantari maitagarriyai iomen-kantak, esagutuak izan ditezen mundu guztian zure birtutiak eta zure izkunde paregabekua.

LUIS IZA ETA AGUIRRE.

*
* *

Fué el oyarcense Mendiburu, en suma,
prodigio humano con palabra y pluma.

ANTONIO DE TRUEBA.

*
* *

Aita Sebastian Mendiburukoren liburuak irakortzean ez daki batek zer geiago miretsi, edo aren paregabeko itz erreza, ugaria, ederra, gozoa eta zorrotza denbora berean, edo Jesusen Biotz maitagarriarekiko zuen amorio neurrigabea.

CLAUDIO OTAEGI-KOA.

*
* *